

# Dantzaren hedapena Euskal Herrian: zenbait ohar

(Some notes on the dissemination of dance in the Basque Country)

Arana, Lide  
Gipuzkoako Foru Aldundia  
Kultura, Euskera, Gazteria eta Kirol Saila  
KM Kulturunea  
Urdaneta, 9  
20006 Donostia

---

*Dantzaren zabalkundea, Gipuzkoan bereziki eta oro har Euskal Herri osoan, azken 30 urteetan. Administrazioak bete duen egin-kizuna eta, nolanahi ere, jokatu beharko lukeena. Konparazioa beste komunitate eta herrialdeekin. Egungo eskari publikoa. Konpainiak kudeatzeko era desberdinak. Azpiegiturak, sorkuntza, programazioa eta publiko berrien sentsibilizazioa. Dantza etorkizun-ean, aniztasuna, forma berriak.*

*Giltza-Hitzak: Dantza. Zabalkundea. Administrazioa. Eskaria. Azpiegiturak. Sorkuntza. Programazioa. Publiko berriak. Aniztasuna.*

*La difusión de la danza en Gipuzkoa en particular y en Euskal Herria en general durante los últimos 30 años. El papel que la administración ha jugado y el que debiera en todo caso jugar. Comparación con otras comunidades y otros países. La demanda pública existente. Los diferentes tipos de gestión de las compañías. Infraestructuras, creación, programación y sensibilización de nuevos públicos. La danza en el futuro, diversidad, nuevas formas.*

*Palabras Clave: Danza. Difusión. Administración. Demanda. Infraestructuras. Creación. Programación. Nuevos públicos. Diversidad.*

*La diffusion de la danse en Gipuzkoa en particulier et en Euskal Herria en général durant ces 30 dernières années. Le rôle joué par l'administration et celui qu'elle devrait en tout cas jouer. Comparaison avec d'autres communautés et d'autres pays. La demande existante, le public. Les différents types de gestion des compagnies. Les infrastructures, la création, la programmation et la sensibilisation de nouveaux publics. La danse dans l'avenir, la diversité, nouvelles formes.*

*Mots Clés: Danse. Diffusion. Administration. Demande. Infrastructures. Création. Programmation. Nouveaux publics. Diversité.*

Paper hauek garatzeko unean larogeigarren hamarkadatik aurrera izandakoak hartu ditu kontutan, gaur egungo egoerara iritsi arte, hau da, administrazio demokratikoa eta Euskal Autonomia Elkargoa abian jartzearen ondorengoak. Herrialdeari dagokionez, Gipuzkoan oinarrituko naiz, nahiz eta beste herrialdeak ere, Bizkaia eta Araba edota Nafarroa eta mugaz bestaldeko lurraldeak ere kontutan izango ditudan.

Neri dagokidan gaia beriz dantzaren hedaketarena da, eta hortan zentratu nahi dudana arren, konturatuko zaretenez ez zait erraza izango hortara mugatzea beste alderdi batzuk erreferentzi bezala izango bait ditut beti.

Beraz, gaian sartuko naiz. Historia apur bat eginez, garai hauetan eman diren aldaketak baloratu ahal izan ditzagun, larogeigarren hamarkadaren aurretik dantzaren egoera Gipuzkoan zein zen esango dut. Eta esan dezadan, beste euskal herrialdeetan ere egoera ez zela hain desberdina, ez zegoela funtsezko desberdintasunik alegia. Beraz, garai hartan, zer zegoen gure herrian alor honi dagokion heinean:

- Ballet klasikoari dagokionean, ikuskizun bakan batzu ikus zitezkeen Victoria Eugenia antzokiak antolatzen zuen programazioaren barnean (garai hartan gestio pribatua zuena hain zuzen ere) eta beste ikuskizun bat udarako Musika Hamabostaldiaren barnean.
- Dantza moderno edo garaikideari dagokionean beriz, azpimarratzekoa da *Anexa* taldearen sorrera eta iraupena zenbait urteetan zehar (1969tik 1974era hain zuzen). Harigarrria, Estatu Espaniarrean sortu zen lehen konpainia. Holakotan gertatzen den bezala zenbait jende hortan saiatu eta, esango nuke, “tematu” zelako.
- Larogeigarren hamarkadaren hasieran bestalde, lehenago *Anexa* izandako zenbaiten ekimenez, Oartzunen dantza garaikideko jardunaldi batzu antolatzen dituzte, Catalunya-tik zenbait talde ekariz.

Eta hori difusio edo zabalkundeari zegokionean, heziketari zegokionean beriz, Donostiako Kontserbategia eta zenbait eskola pribatuk lan egiten zuten, dantza klasikoa erakusten.

Orduan, 1984 urtean, Gipuzkoako Foru Aldundiak, Kultura Departamentuaren birmoldaketa osari ekin zion, bai personalari zegokionean, bai politika bideari zegokionean eta bai aurrekontuari zegokionean ere, eta hasi zen arloz arlo azterketa bat egiten eta aurrera atera zitezkeen ekimenak zein ziren ikusten. Dantzaren arloan, bertako zenbait profesionalekin izandako harremanei esker (dantza irakasleak batipat), eta kontutan harturik Aldundiari zegokion interbentzio alorra hedaketarena zela (instituzioen arteko kompetentzia banaketaren ondorioz), zenbait ekimen jartzen dira martxan: lehen Maiatza Dantzan sortzen da, eta berarekin

batera udako dantza ikastaldiak eta espezializazio ikasketetarako bekak (hauek artearen alor desberdinetara zabaltzen dira: musika, arte plastikoak, antzerkia, dantza etab).

Maiatza Dantzanen lehen edizio hartan (1984ean) 5 taldek hartu zuten parte: Nafarroan kokatua zegoen *Yauzkari* (hau ere *Anexa* ibilitako Lainezen gidaritzapean), Lapurdiko *Ekarle*, Katalunyako *Heura* eta *Ballet Contemporani* eta Frantziako Russillo. Maiatza Dantzan, honela, Estatuko (eta esan gabe doa Euskalerniko) dantzari soilik zuzendutako lehen jardunaldi edo festibala bilakatzen da, aitzindaria beraz. Urteoraz antolatu izan da harrezkero, 2000. urtera arte, 17 edizio edo ekitaldi guztira, eta 124 talde bertan parte hartu dutenak.

Gipuzkoako dantza munduarentzat garrantzizkoa izan da baita ere Artelekuko dantza aretoak zabaltzea, 1993 urtetik aurrera, bertan posible izan da dantza talde, konpainia, elkarte edota partikularek dantzaren sormen, entseiu, koreografian edo ekoizpenean interesatuta daudenek erabiltzea, nolabait ere azpiegitura garrantzitsu bat izan da dantzaren hedatzeko. Azpimarratzekoa da baita ere azpiegitura mailan bai Diputazioak eta bai udalek antzokiak eguneratzeko azken urte hauetan egindako ahalegina, arte eszenikoen zabalkunde egokigoa posible eginez.

Gaur egun, zer dugu? Maiatza Dantzan ezik, aipatu ditugun beste ekimenek martxan jarraitzen dute, eta gaineratu behar dugu, programazioari dagokionean hiru entitateen esku dagoela berau: Kursaal Fundazioa eta Musika Hamabostaldia formato haundiko ikuskizunak (dantza klasikoa batipat) eta Egiako Gazteszenan formato txikiko ikuskizunak (dantza garaikidekoak batipat). Bizkaia-ri dagokionez 2000 urtean ekin diote Dantzaldia deritzan programazioa antolatzeari, formato erdiko ikuskizunekin Euskalduna jauregiko kamara aretoan, eta garrantzitsuagoa dena, La Fundición areto alternatiboa, hau ere inizatiba pribatuaren ekimena, nahiz eta azkenaldian zenbait laguntza jasotzen dituen instituzioen aldetik. Nafarroan eta Araban, Maiatza Dantzanen urratsari jarraiki martxan jarri ziren jardunaldiak oraindik ere antolatzen dituzte, eta Lapurdin, orain urte batzutatik hona Maitaldia deritzan festibala eta batipat orain dela hiru urte sortu zen Zentro Koreografiko Nazionala, Ballet Biarritz izenpean. Eusko Jaurlaritzaren aldetik koreografo berrien lehiaketa, dantza eskolen topaketak eta ekoizpenerako laguntzak, hiru ekimen hauek “Dantzara” egitarauaren barnean sartzen dira. Azpimarratu nahi nuke halaber, Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta Ballet Biarritzen arteko lankidetzak dantzaren sensibilizaketa programa bati ekiteko, eta azken aldian Gipuzkoako dantza profesionalen elkarteak garatutako ekintza programa.

Gure egoera, tamalez, Espaniako Estatukoaren berdina da, eta ez kasualitatez noski, izan ere ez bait du plangintza estrategikorik bultzatu Frantziak egin duen bezala. Madril, Bartzelona eta Valentzia dira dantzarako heziketa zentruak, konpainiak eta programazio iraunkor bat duten bakarrak.

Aldiz, Europako beste lurralde gehienetan, Frantzia, Alemania, Belgika, Erresuma Batuetan, Holandan... egoera arras desberdina da, dantzak, bere modalitate guztietan eta interbentzio alor guztietan bertebratua, antolatua azaltzen zaigu, gurearekin konpara ezina den egoera bat bizi dute. Horren ondorio bezala gure bizilagun lapurtarrek duten zori ona.

Dantzaren ikuslegoari dagokionean ere, egoera hau islatzen da, 2000. urtean SGAEk argitaraturiko datuetan, Espainiako kultur ohiturei buruzkoa, honela dio, populazioaren ehuneko 24a antzerkia ikustera joaten da urtean behin, dantza ikustera berriz ehuneko 2a besterik ez. Ez dago esan beharrik populazio orokorarentzat arte eszenikoak (antzerkiak, dantzak eta operak azken lekuan) garrantzi txikia duela.

Beno, aurrekinak aztertu ditugu, egungo egoerari errepasoa eman diogu, eta orain galdera bati erantzun nahi nioke, hain zuzen ere, zertarako balio du, zer posibilitatu behar luke ikuskizunen programazioak? Nik uste dut helburu hirukoitza izan behar duela:

1. Lehen erantzuna nahiko jakina da guztiontzat: ikuskizun bezala dantzak jendeari gozamenaren eman behar dio.
2. Baina arte eta kultur ekitaldi guztiek badute osagai didaktiko bat ere, gozamenaz gain, edota honekin batera, "pertsonak aberaste" balio behar dute, bizitzaren aurrean jarrera desberdinak adierazi, galdera trazendentalak egin eta erantzunak proposatu, gauzak egiteko modu desberdinak adierazi edota azken joera artistiko desberdinak erakutsi.
3. Bestalde dantza ikuskizunen programazioak dantza beraren garapenerako interesgarria gertatu behar du: zaletu berriak sortu behar ditu, eta dagoeneko badirenak, dantzari, koreografo eta orohar "profesioko" jendeari topagune bat eskeini behar dio, "profesioaren" normalizaketan lagundu.

Guzti hau oso erreza dirudi paperean idatzita ikusten dugunean, baina oso bestelako gertatzen da errealitatean, alegia, gaur egunean badakigu asko kostatzen dela artearen balore hauek "saltzea", jendea antzokira eramatea. Gaurko gizartearen, aisialdirako hainbeste eskaintza ematen dira, kirola, telebista, zinea, musika... zaila gertatzen ari da arte eszenikoetarako orohar eta dantzarentzako bereziki, eskaintza horiekin lehian aritzea.

Horretarako azken urteotan halako garapen itzela izan duten marketing-eko teknikak aztertzen baditugu, beraren urrezko arau batekin topatuko gara, eta hala dio: produktu bat saltzeko, publiko interesatua identifikatu eta identifikatu ondoren, ondo zaindu behar dugula, beronek erakarriko dituelako beste publiko batzu. Gure kasuan, ikuslego interesatu hori identifikatu nahi izanez gero, berehala konturatzen gara oso txikia dela, esan

dezakegu elkar ezagutzen dugula denok, hain txikia non zaila gertatzen den programazio bat justifikatzea, dirua jari behar dutenen aldetik eta baita ere komunikabideei dagokienez heinean. Nik uste dut ikuslego interesatu hori haunditu egin behar dugula, indartsuagoa bilakatu, eta hori egiteko ez da nahikoa dantza programatzearekin, nire ustez, dantzaren heziketari batipat eta ekoizpenerako posibilitateei irtenbide bat emango bagenie, hori lortuko genuke. Bestela, alpernikakoak edota antzuak gertatzen dira zenbait ekimen eta programazio, alpernikakoak hortan administrazioak gastatzen dituen diruak, iragarkiak, kartelak eta halakoak.

Zeren, ikus dezagun zer gertatzen den dantza-rekin batera eszenatokiak okupatzen dituzten beste arteekin, musika eta antzerkiarekin alegia:

- Musikaaren alorra da garatuena dudarik gabe, ospea eta sona du eta batipat gorago aipatzen nuen "publiko interesatua" oso zabala. Bestalde, egiturei dagokienez nahiko garatuak ditu (eta aspalditik izan ditu horrela, hau da tradizionalki horrela izan da), irakas-kuntza arautua nahiz afizionatu edo zaletuentzat nonahi aurki ditzakegu eskolak (udalherri gehienetan), eta gainera, azken urteotan Euskadiko Orkestra Sinfonikoa, Bilboko Orkestra, Orkestra Gaztea, eta herri bakoitzean abesbatz bat, Donostiako Orfeoia, Eresbil musikaaren artxiboa, makina bat elkarte... Emanaldiak, programazioa oso zabala, maila guztietakoa. Eta ez ditzagun ahaztu, diskoa eta iratiak, zabalkunderako instrumentu paregabeak, gure etxeetara, kotxeetara, tabernatara eramaten dute musika, bai klasikoa eta zer esanik ez bestelakoa, pop, rock eta abar luze bat.
- Antzerkiaren alorra azter dezagun, musikaaren ondoan oso tradizio txikia eduki du gure artean, gainera, egiturei dagokienez heziketarako zentru arauturik ez du gaur egun. Baina eduki zuen larogeigarren hamarkadan Antzer-ti eskola zeritzana, eta gaur eszenatokietan nahiz eskola-tailemetan ikusten ditugun aktore, zuzendariak bertatik pasatakoak dira asko. Azken urte hauetan, larogeigarren hamarkadatik aurrera garapen bat izan du, taldeak sortu dira eta batzu oso urrutira intsi direla esan dezakegu, programazio bat bada-gu, baina oraindik ere oso "ahula" dela esan daiteke. Eta, azpimarragarria dena, Euskal Telebistaren (batez ere ekoizpen propioak egiten hasi zenetik) nahiz Estatuko telebista pribatuetan lan eginez, lortu dute behintzat "profesiotik" bizi ahal izatea.
- Dantzaren alorrean, zer tradizio eduki du gure herriak? Dantza tradizionalarena, folklo-rearena, aspalditik datorrena, baina ez dantza akademikoarena. Hori bai, dantzariak sortu dira, hain zuzen ere dantza tradizionaletatik abiatu diren askoren kasuak ezagutzen ditugu, ez dezagun ahaztu gure dantzak dantza akademikoaren oinarrietan egon zire-

la, forma pre-klasikoak bait dituzte, eta forma eta urrats horien exekuzioan nabarmentzen ziren dantzariak “ballet”a egitera pasa izan dira eta hortik atzerrira joan behar izan dute konpainia baten dantza egitera. Beraz dantzari esportatzaileak izan gara, baina ez ditugu sortu dantzari horiek hemen gelditu ahal daitezen beharrezko diren egiturak, ez heziketan eta ez sorkuntzan eta ez ekoizpenean.

Zer egin egoera honetan, zabalkundearen eta programazioaren alorretik, neri egokitu zaidan alderdi honetatik? Nire ustetan, zabalkundeak zentzu bat eta sustrai bat izan behar du, bestela, lehen esaten nuen bezala ahalegin guztiak antzu gertatzen dira. Sustrai hori lortzeko plangintza bat behar dugu, plan estrategiko bat nolabait esateko.

- Heziketaren arazoari irtenbide bat aurkitu. Horretarako posibilitateak aztertu beharko dira, LOGSEa garatu. Antzerkiarekin batera arte eszenikoen institutu bat sor daitekeen ikusi, Bartzelonakoaren antzera...Teknika eta joera desberdinak kontutan edukiko dituen “gaur egungo” eskola bat. Zer esan nahi du honek? baliapide teknologikoak, eszenografiari aplikatutakoak, argiztatzea, jantziak, interpretazio teknikak etab. Kontutan hartuko dituen.

- Sorkuntzarako egiturak sortu, nik esango nuke bide errazena heziketaren ondorio bezala etorriko litzatekeela, eskolako konpainia, koreografo gonbidatuak, bertan sortutako lanak erakustea, etab. Eta epe luzeagora konpainia iraunkor bat. Ereduak aztertu daitezke, hemen-txe dugu Biarritz Balleta esate baterako.

- Bitartean, zabalkundearen alorrean lanean jarraitu behar delakoan nago, ez bakarrik programazioan, baita ere beste ekimen batzu egin daitezke: sensibilizaketa jarduerak eskoletako haurrentzat, gaur egungo dantza eskoletan dabiltenekin, beraien irakasleekin etab.

Ikuskizunen programazioari dagokionez, antzokiak baditugu, tamalez une honetan Victoria Eugenia itxita dago eta horren ondorioz hutsune nabarmen bat dago, baina 2004ean ateak irekiko dituela espero da, nire ustez ordurarteko epean (bi urte luze gelditzen dira) bertan zer egingo den aztertzeko denbora oso garrantzitsua izan daiteke. Zergatik ez arte eszenikoen garapenean zentratu? Programazio egoki bat, linea edo ildo bat edukiko duena, eta zergatik ez, ekoizpenak egiteko ahalmenarekin, nahiz dantza nahiz antzerkian?

Honekin amaitzen dut nire interbentzioa. Mila esker zuen arretagatik.